



“Iraintzea hitzez jotzea da”

Joan den martxo-apirila bitartean "JUUL" izeneko ipuina erakutsi zaie adin honetako ikasleei Ondarroan eta Markina-Xemeinen herriotako liburategiek antolatuta. Ipuin honek ikasbide paregabea eskaini die. Juul pertsonaiari esker argiago daukate orain jotzeak berak bezainbesteko indarkeria daukabela beste ekintza batzuk, berba iraingarriak, burua makurrarazten dutenak ala laidoak, adibidez, eta hain iraingarriak dira ze burumakur eta lur jota uzten dutela pertsona. Horregatik, erakusketaz arduratu den profesionalarekin sakondu nahi dugu iraintzeko modu hau.

Zer dela eta izenburu hori: "iraintzea hitzez jotzea da"?

Azken batean dena diolako, **jotzeaz beste min hartzen duzu iraindu bazaituzte**. Paco Abril asturiarra da egitasmo honen arduraduna eta erakusketaren gidaria, oso esanguratsua iritzi zitzaion esaldia, gainera, 6 urteko neskatila bati entzun ziola kontutan hartuta.

Iraintzeak zer suposatzen du? Nola sentitzen da iraindua?

Iraintzea pertsonaren umilazioa da, bere duintasuna kakaztea; iraintzeak pertsona bera zapaltzea suposatzen du; askotan egiten duenarentzat garrantzirik ez dauka apenas garrantzi handirik gabeko gauzen artean beste bat da iraina botatzea, jasotzen duenarentzat ostera guztiz alderantziz da.

• **"Irainduak" zer sentitzen duen** jakiteko zer hobeto hemengo eskualdeko gaztetxoek eurek erantzundakoa baino: **minduta** sentitzen da, **haserre**, lotsatuta ere, desberdina dela, bihotza baltzitura daukala, etab...

• **"iraintzaileak" zer lortzen du? Beste pertsona mintzea, momentu txarra pasaraztea,** arrazoi desberdinak direla medio, arrazoirik egon baliteke horretarako. Eurek gazteek **hainbat arrazoi** eman dituzte: **askotan denbora pasatzearren**, aspertuta egoten ei dira eta, bestetan, **norbere burua defenditzeko** edota ahulagoa denarekin barrua arintzeko, taldekidea izateko (taldekoa izateko hori baldin bada baldintza, bada iraindu ezazu eta kitto).

Irainari buruzko zehaztasun batzuk: adina, irain motak, sexu aldetik, etab...

Adina: txikitatik hasten dira elkarri irainka. Baina, gutxi gorabehera 7 urte daukatela gaia lantzen hasteko moduan egon gaitzke. Sasoi horretan jada krudelagoak ere badira, tira-bira gehiago sortzen dira euren artean, lagunek ere gero eta pisu gehiago hartzen dute. Zer esanik ez jada 12 urtetik aurrera.

Irain-motak: askotan irain mota baino intentzioa da garrantzitsua, irainduak jakingo du bera ez dela esaten dioten hori, baina hala ere mespretxua sentituko du eta min egiten diote.

Irain motak askotarikoak dira eta era askotara ematen dira: bai berdinaren artean baina baita heldu-umeen artean ere. Baina elkarriketa honetan berdinaren arteko irainetaz berba egingo dugu. **Irain mota zerrenda bat egitekotan honako hauek aipatuko nituzke:**

• **Itxuran oinarritutakoak** (kontua da aka-tsak ateratzea)

• **Gizartean ondo ikusita ez daudenak** (adibidez, adolezente bati "puta" deitzea edo "marikoia").

• **Desberdintasuna markatzen duenak:** arrazistak, generokoak...

Askotan zer esaten den baino zelana eta nork esaten duen dauka pisu gehiago, baita nori esaten zaion ere, normalean oso bortitz esaten baitute eta ahulago denari alegia.

Sexua: bai neskek bai mutilek, biek iraintzen dute, era desberdinak badituzte ere. Neskek findu egiten dute euren era, iraindu iraintzen dute baina ez era nabarmen batean, mutilek ordea, bat-batean eta indar handiagoaz. Beste desberdintasun bat ere ikusi izan dut: alde batetik, parte hartzerakoan neskek erreflexio handiagoa egina dutela ikusten da, hitz egiterakoan beren sentimenduak hobeto ateratzen dituzte, zelana bizi duten, etab... Mutilek ordea, hasieran, askotan diote: Juul tontoa da edo zer? Gero gaian sartzen dira baina gehiago kostatzen zaie beti ere.

Iraintzea, etiketak jartzea, burlak egitea, norbait baztertzea... zaku berean



elkarrizketa



sartu ahal ditugu? Zein da orduan "Juul" ipuinaren mezua?

Aipatutako irain guzti horien helburua pertsona umilatzea da, norbere estima guztiz ezabatzea, min egitea.

Kontutan izan behar dugu 12-18 urtekoen sasoi hau oso berezia dela. Lagunek pisu ikaragarria daukate eta lagunengandik horrelako zoezer jasotzen duenarentzat gehiegizkoa da.

Aipatutako guztiarekin lortzen duguna da pertsona horri kentzea aukera:

- Den bezala agertzeko
- Lagunak edukitzeko
- Bere burua ezagutzeko
- Baloratua izateko

Sasoi honetan taldearen onarpena beraientzat funtsezkoa dela esango nuke nik. Orduan, **taldeak gauza asko markatzen ditu: itxura, kontsumoa, hau ala bestea gustatu, ideologia jakin bat, eta askotan, taldearen aginduetara daudenez gero gertatu izaten da norbait iraindu beharra ere, bada iraindu egiten da nahiz eta ados ez egon.** Taldeko eragina guztiz pisutsua da, beraz, iraindu duten pertsona hori taldeak ez badu onartzen haren alde ere ez dute egingo, bistan denez.

"Juul"en mezua beraz zera da: zer nolako mina jasotzen duen pertsona batek iraintzen dutenean. Ipuinak metafora bat bezala kontatzen digu, noski; kanpotik apurtzen da baina apurketa hori barrutik gertatu da. **Ikusten da zer egiteko prest dagoen besteen onarpena lortzeko.** Bera eta taldearen artean dauden mugak kentzen ditu eta azkenean ere ez du lortzen taldean sartzea.

Aberasgarria izan da hemengo gazteekin ere horretaz lasai berba egitea.

Zer nolako garrantzia du honek guztiak inguruan? Zer eginik ba ote dute gurasoek?

Hezkuntza arloan, nik esan ahal dut, ahal duten guztia egiten dute hezitzaileek eta egia esan, denetara ezin dira heldu; irakasleek bai lantzen dutela eta arduratuta ere badaude.

Halere, **oinarrizko estamentua, honetan ere, familia da.** Baina normalean familia konturatzen da seme-alaba iraindu dutenean baina ez hainbeste beste batzuekin gertatu bada. Juul bezalako ipuin batek aukera ematen digu gai hori lantzeko.

Inor iraindu bada, lehenik eta behin, **garrantzitsua da etxean jakitea,** hau da, irakasleen bidez edo beste edonondik seme-alaba zer jasaten ari den jakin beharra. Agian, bera ondo ezagututa nabariturako zaio eta hori litzateke hobereana, etxekoen artean dagoen komunikazio ona dela medio horretaz berba egitea.

Gurasoek adi-adi egon behar dute, seme-alaba iraindu badute **berarekin egongo dira eta baita be irakasleekin.** Bere estima asko sendotu behar da, benetan berak balio duena ikusarazi behar zaio, gauza positiboak esanda, maitasuna erakutsita, meritua duela agertu, bere kalidade on guztiak ispilu batean bezala ikusarazi, etab... Lortu egin behar da irain horiek eragin dioten ondorio negatiboa apaldu eta **adorea ematea, erreakzionatzeko era bat ikastea eta garatzea, indarra hartu behar du eta lagunduta sentitu behar da.**

Beste heziketa gai askorekin gertatzen den bezalaxe, **etxetik egin behar dugu lana.** Familia eredu asko aldatu da, aldaketetara moldatu egin behar dugu baina ahaztu gabe denok inplikatu behar dugula, kasu honetan gure seme-alaba iraindua ez bada ere. **Etxean berba egiteaz gain, gurasoek seme-alabaren eredu izan behar dugu gai honetan ere.** Ez du askotarako balio esatea "ez inor iraindu" eta gu adibidez auzoko bat "deskalifikatzen" egon. •

Norbait interesatuta balego "irainen" gaiaren inguruan, aprobeztatzen dut esateko Markina-Xemeingo bibliotekan, **gurasoentzat tertulia bat** prestatu dela, **maitazaren 26an, arratsaldeko 18:00etan,** Juan Carlos Alonso psikologoaren esku. GURASO GUZTIENTZAT da.

Insultar es pegar con palabras

En este tema como en otros tantos temas, el pilar fundamental es la familia. Normalmente la familia se da cuenta cuando su hijo-a es insultado.

Hay que procurar que en casa se sepa desde un principio qué es lo que está viviendo su hijo-a a través de profesores, monitores, otros amigos...

En cualquier caso, los padres deben estar muy cerca del hijo-a y también del profesor, hay que hacer un trabajo conjunto. Hay que reforzar su autoestima, hacerle ver todo lo que vale, diciéndole cosas y cualidades positivas como si se viera en un espejo, mostrándole cariño, etc... Hay que conseguir que todo lo negativo que le ha provocado recibir esos insultos pueda aplacarlo y coger fuerza, tiene que aprender otra manera de reaccionar ante eso y en todo este proceso tiene que sentirse apoyado.

liburu interesgarriak

